



Sentimendu Ar-tean- Dantzaz konpainiaren eskutik, "Arte-an" obraz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek larunbata arratsaldean. Hiru zatitan banatutako ikuskizuna izan zen; ordu eta erdi pasatxo iraun zuena: Itzik Galili koreografoaren "Earth Apples" eta "Flash Deluxe" eta Lukas Timolaken "A Place Between" saioak izan zituzten gozagarri Manuel Lekuona kultur-etxera hurbildu ziren 60 herritarrek. Saio trinkoa izan zen, barneratzeko zaila obrei zerien mezu landu eta sakona medio, norberaren interpretazio eta emozioei irekita zegoen lan bakoitza. Dantzarien ariketa eta urrats akrobatikoak mugimendu goxo eta lasaiekin uztartzen ziren, nolabaiteko kaosa sortuz aretoan, argi-jokoek eta musika biziak unibertsio nahasi horretan ordena pixka bat jartzen laguntzen zuten arren. Finean, basatia eta zibilizatu izan zen obra aldi berean, orain ur eta orain harri. Kementsua eta xaloo. Sentimendu ur-jauzi jarrai bat eskaini ziguten Euskal Herri zein Europa osotik etorritako 12 dantzari trebeek eta txalo zaparrada luzeaz agurtu zituzten herritarrek dantzari izateaz haratago, atleta eta antzezle ere badiren neska-mutil gazteak.

3 FESTAK

Haur danborradan izena emateko epea zabalik Gaztelekuan

San Pedro Jaietako egitaraua prestatzen ari da Udala, besteak beste, haurren danborrada. Ekainaren 30eko igande goizean aterako da haur eta gaztetxoek danborrada eta honetan 5 eta 12 urte arteko herritarrek parte hartu dezakete. Gaur irekiko da izena emateko epea Gaztelekuan.

4-5 KULTURA

Musika Astea lehen aldiz egingo da, Udalak antolatuta

Bost egunetan zazpi emanaldi berezi bildu dira eta bi dira bereziki aipagarriak. Ruper Ordorikak apirilaren 19an 20:30ean Manuel Lekuonan eskainiko duen kontzertua eta igandean 12:30ean Ana Belen Garciak Brigidatarren komentuan eskainiko duen organo kontzertua.



6 KIROLA

Asteburu bikaina burutu du Beltzak taldeak etxean

Garaipen epikoa lortu zuten herritarrek Irun Zaisa 24-19 mendean hartuta, hainbat momentutan hiru jokalaririk gutxiagorekin arituz. Kadeteen Euskal Ligako jardunaldiaz gain, Errugbi eskolen 3. topaketa egin zen, alebin eta benjaminen haien trebezia erakutsi ahal izan zuten.



- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

**BEHERAPEN HANDIAK
GAU-MAHAIRAKO
LANPARETAN !**



www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

Adituak dio



Jonpe Artetxe
Hezitzailea

Urte dezente pasa da herrian Kuadrillategi programa martxan jarri zenetik. Herriko gazte eta nerabe belaunaldi ugari pasa gara denbora honetan. Hasiarik gaur arte ehundaka lasartearrok izan dugu bertan parte hartzeko zortea. Garai batean, nahiko talde txikitant biltzen baziren/ginen ere, egun herriko gazte eta nerabeentzako aisia erreferente izatera iritsi dela esan dezakegu, azken ikasturtean bertan, ekintza ezberdinetan parte hartu duen gaztetxo kopurua ehundik gorakoa dela ikusita.

Egia da azken urteetan herrian ez dela aisialdiari zuzendutako eskaintza zabalegirik izan. Hori horrela, Kuadrillategik beste herri-tan gaztelekuek edo antzekoek dituzten funtzioak hartzera behar-tuta ikusi da. Hala nola, DBH-ko adin tartearantz astero-asteroko ekintzak, asteburutako ekintza puntualak eta udako kanpaldiak prestatzera. Bide batez, azken ere kanpaldi mundiala prestatzen ari garela esateko aprobetxatu nahi dut, kar kar.

Aipatu dut hasieran talde txiak ginela, eta horrek bazuen bere logika. Euskara hutsean funtzionatzea eskatzen duen tesi batean du oinarria Kuadrillategi. Eta jakin badakigu, Lasarteko nerabeeek euskaraz jakin, ia denek jakin arren, ez dutela hainbestek erabiltzen.

Urteak aurrera, geroz eta gaztetxo gehiagok egin dute Kuadrillategira hurbiltzeko hautua. Berri pozgarria, urteetan proiektuan lanean aritu eta sinistu dutenen lan bikainaren adierazgarri. Euskara hutsean funtzionatzea ez da hain erraza suertatzen batzuetan; ez gaude kekatzeko ordea! Datorren ikasturteari begira, Gaztelekua Kuadrillategirekin uztartzea lortzen badugu, inoizko aisi-aukera potentena izango dute gaztetxoek! Bukatzeko, gure begirale izan zirenei eskerrak eman, haiengatik ez balitz, ez nintzateke eta hau idazten ariko. Gora KTG!

Gazte zara gazte!

Lasarte-Oriako gazteak martxan daude, bizi-bizirik. Eki-men ugari antolatzen dituzte euren kabuz, herriari bizia eman eta kaleetako giroa suspertzeko asmoz. Besteak beste, ezagunak dira herriko festetan, era alternati-boan, gazteek antolatzen dituzten Sorgin Jaiak, edota urtero antolatzen duten Multimusikala bezalako ekintzak.

Era berean, ez dira gutxi herriko kultur elkarte, musika eta kirol talde edota norbanakoen proiektu ekintzaileetan buru-belarri dabiltzan gazteak. Euren ametsak elikatzen, orainetik, geroa sortzen.

Kuadrillategi, Gaztekluba eta udako txokoetan ere gazteak dira hezitzaile eta herriko gaztetxoak hartzaile. Gazteengandik gazteengana.

Orain, martxan jarri du Udalak Gaztelekua, herriko gazte guztien topagune izateko jaiotako lekua. Duela aste batzuk ireki zituen ateak, martxoaren 22an egindako irekiera ekitaldiarekin.

Beraz, hemendik aurrera herriko gazteek aukera izango dute Gaztelekuko instalakuntzez gozatzeko, ideia eta proposamen berriak mahaigaineratu eta gainontzeko gazteekin partekatzeko. Finean, ikasi eta gozatzeko, sortzeko.

Ikusi beharko da Udalak egindako esfortzua zein neurritan baloratzen duten gazteek, erabiltzaileek, baina printzipioz hor dago aukera.

Gaztelekua edota edozein elkargunetik, gazteek elika dezatela geroa, orainetik!

Talaiatik

Hitz eta pitz

Zer iruditzen zaizu Gaztelekua martxan jartzea?



Aner Lozano

Positiboa da gazteentzat leku bat izatea. Gero jakin behar da hori eramaten. Nik behintzat ideia polita dela uste dut. Gizartearen beste ikuspuntu bat bilatu eta eskaini beharko luke Gaztelekua. Uneoro internet eta Whatsapp-arekin dabiltzan umeak ikusita, hauek ideia berriak garatu eta irudimena lantzeko elkargunea izan beharko luke, kultura anitzeko jendearen bilgune.



Gorka Alvarez

Printzipioz ekimen ona eta polita da, betidanik herrian falta izan dena. Guk behintzat faltan botatzen genuen duela urte batzuek. Ez dakit nola funtzionatuko duen kudeaketa aldetik, baina, leku bat izan behar du aisialdia konpartitzeko eta pentsakera ezberdineko herriko gazteak elkar eta harremanak sortzeko. Herrian gazte mugimendu bat sortzeko bide egokia izan daiteke.



Juan Mari Sarobe

Ondo, gazteentzat beharrezkoa da, baina hainbeste diru gastatu beharrean, orain Udalek handia egitea lortu denean, agian, zerbait bertara ekarri eta bazegoen beste lekuren bat libratzea. Adibidez Villa Mirentxu. Gure garaian boletan sartzen ginen, beraz jolasteko gauzak, zerbait hartzeko makinaren bat,... eduki beharko lituzte. Badakit semeen lagunen bat joan dela.



Aizkoaitz Egja

Gazteentzat toki bat eukitzea ona da, gauza berriak ikasi edota iritzia emateko elkargune bat izan daiteke. Ama naizen aldetik, oso ondo iruditzen zait, herriak halako zerbait behar zuela uste dut, gaztetxoak bestela euren koadriletan biltzen direlako, kalean, zelaietan edo lokaletan. Gaztelekua-ekin euren adineko gaztetxoekin bildu eta elkartzeko aukera izango dute.

Iruditan



1993ko azaroan Gazte Astearen trikimaki ikastaroa egiten.

Gazteentzat aisialdi aukera

Udalak zabaldu berri du Gaztelekua Jaizkibel plazan eta orain ekintzaz eta gaztetxo betetzeko asmotan dabil. Herrian gaztetxoentzako aisialdi eskaintza nahikoa izan den edo ez euren baloratu beharko dute baina orain aukerak zabaltzen direla ezin ukatu. Ttakunen urteak dira KTG ekimenaren baitan eta soilik euskaraz nerabeei aisialdirako eskaintza erakar-garria egiten saiatzen dela urteik urtera. Gazteek beti bilatu dute elkar eta ekintzak, aisialdi garaia elkarrekin burutzeko aukerak eta 1993an elkarla-nean aste osoa antolatu zuten.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,
Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Aruti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

SAN PEDRO JAIK



Haur eta gaztekoen danborrada ekainaren 30ean, igande goizean aterako da San Pedro jaietan kaleak alaitzeko asmoz.

Haur danborrada prestatzen

Gaztekoen eman behar da izena eta gaur hasiko da epea

San Pedro jaietan haur eta gaztekoek ere badute bere tartea. Helduen antzera, txikiak ere danborrada jotzeko aukera dute egun seinalatu hauetan. Ekainaren 30ean, igandean aterako da haur eta gaztekoen danborrada eta honetan 5 eta 12 urte arteko herritarrek parte hartu dezakete. Gaur irekiko da izena ematea Gaztekoen.

San Pedro Jaietako egitaraua prestatzen ari da Udala eta ekintzen barruan, urtero legez, haurren danborrada dago. Hau ekainaren 30an, igande goizean, gure herriko kaleetan barrena ibiliko da jaiak alaituz.

Haur danborradan Lasarte-Oriako 5 eta 12 urte arteko haur eta gaztekoek parte hartu ahaliko dute.

Gazteria sailak azaldu duenez, 13 edo 14 urte dituz-

ten haurrek, edo kopuruagatik barriletan plazarik izan ez dutenek, aurreko urteetako jantziaren parte hartu ahaliko dute.

Era berean, kantinera edo gastadore plazarik ez duten 5 eta 6 urteko haur guztiak baserriarrez jantzita parte hartu ahaliko dutela adierazi du.

Izena ematea Gaztekoen

Haur danborradako izena

ematea gaur astelehena, apirilaren 15a irekitzen da eta maiatzaren 3ean amaituko da.

Horretarako, 5 eta 12 urte arteko haur eta gaztekoek etxeetara eskutitza bidaliko zaie. Eskutitzarekin batera doan inskripzio fitxa bete behar dute. Gaztekoen dagoen Gazteentzako informazio bulegoan, 12:00etatik 21:30era, jasoko dira fitxa hauek eta izena ematea baieztatuko da.

Informazio gehiago eskuratzeko ere Gaztekoen hurbildu behar dira interesatuak.

Plazen zozketa maiatzaren 10ean egingo da eta emaitza maiatzaren 14ean emango da jakitera Manuel Lekuona kultur-etxeke iragarki taulan.

AISIA

Udan begirale izan

Udako Txokoak egitasmoan edo udaleku itxietan, uztaila eta abuztuan, begirale izan nahi duten gazteek orain dute aukera izena emateko.

Begirale izateko baldintza bakarrak 18 urte baino gehiago izatea eta euskaraz komunikatzeko gai izatea dira.

Honetarako zenbait bide dituzte interesatuak: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakuneko bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke. Azken eguna maiatzaren 8a da.

KULTURA

Literatura lehiaketan parte hartzea

Kultura sailak gogora arazten du, Lasarte-Oriako literatur lehiaketetan, bai helduen mailan, baita haur eta gaztekoen mailan ere parte hartzeko epea irekia dagoela.

Haur eta gaztekoen kasuan ipuina eta poesiak aurkeztu ahal izango dira euskaraz zein gaztekoen eta helduontzat iaz estreinatutako mikrokontakizunak eta poesia lanak.

Lehiaketan parte hartzeko oinarriak eta sariak www.lasarteoriasaren.eu orrialdean daude ikusgai.

Jatorrizkoak aurkezteko epea 2013ko maiatzaren 17an 13:00etan amaituko da eta Manuel Lekuona utzi beharko dira edo postaz bidali epearen barruan.

SOLASKIDE

Pintxo afaria Arrieskalletan

Solaskide egitasmoak lagunek pintxo afaria antolatuko dute maiatzaren 9an, 20:00etatik aurrera, Arrieskalleta elkartearen.

Honetan pintxo afariak gozatzeaz gain, jolas dinamikoak eta hizkuntza erabiltzeko dinamikak egingo dituzte.

Afarian izena emateko azken eguna maiatzaren 6a izango da, astelehena. Afariak 12 euro balio ditu.

Solaskiden parte hartzen duten euskaldun berri eta zahar guztiak daude gonbidatuak afarian parte hartzera.

PSE-EE

Etxebizitzaren desjabetzea pairatzen dutenentzat lokalak

PSE-EE taldeak, etxe desjabetzea pairatzen dituzten herriko bizilagunei udalak bere esku dituen lokalak doan uztea proposatu dio Udalari, hauetan etxeke altzari eta bestelakoak jasotzeko aukera izan dezaten.

Talde sozialistak azaltzen duen moduan egunero gertatzen ari dira etxe desjabetzeak eta familia asko dira arazo honetan murgilduta aurkitzen direnak euren hipotekei aurre egin ezinik. "Arazo larri honen aurrean erakunde ezberdinetatik konponbideak landu beharko genituzke hauek gerta ez daitezen".

Maiatzean ere famili ikastaroak

Gazteria eta Kultura sailak antolatzen dituzten Gazte ikastaro eta kultura ikastaroak martxan daude.

Hiruhilabete honetan berrikuntza gisa, famili ikastaroak txertatu dituzte eskaintzan.

Hauek guraso eta haurren arteko harremana sendotzeko helburuarekin antolatu dira.

Saioak

Lehen saioak hilabete honetan larunbatetan izango dira, baina maiatzean ere lau saio

izango dira eta hauetan parte hartzeko izena ematea irekia dago oraindik.

Maiatzaren 4an, ipuinaren mundua; 11an, Yoga eta Erlaxazioa; 18an, haurrentzako masajea eta 25ean, Sexualitatea familian hitzaldia izango da.

Ikastaroei buruzko informazio eta zehaztapen gehiago www.lasarteoriasaren.eu orrialdean aurkitu daitezke.

Saio hauetako izena ematea Gaztekoen egin behar da.



Despervicioen doinuak Jalgin.- Punk-rock taldea da Despervicio, ezaguna herrian, eta Jalgi Kafe antzokia hankaz gora jarri zuen Andoni (gitarra eta ahotsa), Harriet (bateria), Igor (gitarra) eta Enekok (baxua) osatutako laukote herriar-lasarteoriatarrak. 2012ko azaroan ekoiztutako "Ireki Begiak" estudioko azken diskoa aurkeztu zuten, baina errepertorioko kanta zaharrak joaz lortu zuten publikoa bero-bero jartzea. Ostiral gaueko Jalgiko egitarauaren barnean antolaturiko kontzertua izan zen, Xpressionk-en eskutik eta jende asko hurbildu zen herriko musikariak ikusi eta entzuteratzen. Irudian, euren koadrilako Urko trikiritxa esku artean duela ageri da eta besteak beste, abesti propioez gain, Kortaturen "Zu atrapatu arte" eta Hertzainak "Pakean utzi arte" kanta historikoak jo zituzten.



Musika Aste oparoa lehen aldiz

■ Kalitatezko eskaintza apirilaren 17tik 21era I. Aste Musikalean **■** Ruper Ordorika bakar bakarrik arituko da ostiral gauean **■** Brigidatan ez da organo kontzerturik egin 1991tik

Lasarte-Oriako I Aste Musikal oparoa antolatuta du Udalak apirilaren 17tik 21era bitartean. Bost egunetan zazpi emanaldi berezi bildu dira, denak ere nabarmentzekoak, baina bereziki bi azpimarratu dituzte antolatzaileek. Batetik ostiralean 20:30ean Ruper Ordorikak kontzertu desberdina eskainiko duela, talderik gabe berak bakarrik eta, bestalde, igandean 12:30ean Ana Belen Garcia organo kontzertua eskainiko duela Brigidatarren komentuan. Aipagarria da mezatan astero erabiltzen bada ere, ez dela kontzerturik egin 1991az geroztik eta bestalde, 1915ean jarri zen organoa afinatu eta puntu-puntu jarri dute.

Jon ALTUNA IZA

Hilaren 17tik 21era musikak hartuko ditu herriko zenbait espazio eta hainbat emanaldi eskainiko dira. Boris Nogales kultura zinegotziak ostiraleko aurkezpena adierazi zuenez, "zazpi izar dira bost egunetan kontzertuak". Musikeneko Saxofoi Ensemble taldeak, Duo Soupir-ek Ruper Ordorikak, Pasaia "Octopus" eta "White Storm" konbo taldeak eta Ana Belen Garcia organistak joko dute Musika Astea.

Gainera antzerkiak eta zinemak osatuko dute egitaraua. Batetik Biolin Magikoa, hiru herritarrek osatutako Ate Joka taldearen antzerki lana eskainiko da eta Okendo zinema taldeak pelikula berezia programatu du: 'Let's Get Lost' Chet Baker-i buruzko dokumentala hain zuzen ere.

Ostiral goizean Manuel Lekuonan egindako aurkezpenean egon ziren, Udaleko Boris Nogales, Xabier Goitia eta Juxanti Ugarte, Musikeneko akademi-kudeatzaile Patri Goialde, Ana Belen Garcia organista eta ATeJoka antzerki taldeko Jon Garagarza.

Boris Nogales-ek nabarmendu zuen aurreko urtean alde batean izan ondoren, aurten Kultur Batzordean musikari bultzadako ematea erabaki dutela eta lehenengo aldiz Musika Astea antolatu.

Eta zehazki helburuak lau dira antolatzaileek adierazi dituzte: herritarrei kultur arerazpen hori hurbiltzea, aste batean kalitatezko musika egitarau eskaintzea, herriko musika sortzaileen lana bultzatzea eta herriko musika elkarteekin parte hartze dinamika bat sortzea.

Egitaraua

Astea irekiko duen Musikene- ren izenean Patri Goialde- nabarmendu zuen erakunde- ren helburuak bi direla nagusi- sik, ikasleen formakuntza eta profesionaltasuna zaintzea eta dinamika akademiko horretan saiatzen direla ikasleei ikastea- koa publiko aurrean erakuste-

ko aukera eskaintzen. Karsten Dobers-ek zuzentzen duen Saxofoi Ensemblek asteazkenean joko du 19:30ean.

Ostegunean ordu berean Ainhoa Merzero abeslari her- naniarrak eta Alberto Saez pianistak osatzen duen Duo Soupir-ek joko du eta ondoren 21:30ean Zine Proiektio bere- ziki kontzertatuta". Musikeneko Saxofoi Ensemble taldeak, Duo Soupir-ek Ruper Ordorikak, Pasaia "Octopus" eta "White Storm" konbo taldeak eta Ana Belen Garcia organistak joko dute Musika Astea.

Gainera antzerkiak eta zinemak osatuko dute egita- raua. Batetik Biolin Magikoa, hiru herritarrek osatutako Ate Joka taldearen antzerki lana eskainiko da eta Okendo zinema taldeak pelikula bere- ziki kontzertatuta". Musikeneko Saxofoi Ensemble taldeak, Duo Soupir-ek Ruper Ordorikak, Pasaia "Octopus" eta "White Storm" konbo taldeak eta Ana Belen Garcia organistak joko dute Musika Astea.

Ordorika gordin gordin

Ruper Ordorikaren kontzertua- rekin hasiko dira asteburuko programatu diren emanaldi bikainak.

Musikari ezaguna, talderik gabe etorriko da, bakar bakar- rik eta kontzertu berezia izan- go da. Modu berri honetan lauzpabost kontzertu eskainiko ditu, bat Manuel Lekuonan ostiralean arratsaldeko 20:30ean. Bere ibilbidea erre- pasatuko Onatiko abeslariak bere gitarraren laguntzarekin.

Larunbatean 19:30ean Pasaia Musikaleko bi konbo- ren txanda izango da. "Octo- pus" eta "White Storm" taldeek joko dute Josu Elberdin musikariak zuzenduta. Pasaia-ko Musika Eskolako sartzaleen lana bultzatzea eta herriko musika elkarteekin parte hartze dinamika bat sortzea.

Organoa eta antzerkia

Igandean bi emanaldi oso be- rari egingo dira, eguerdian orga- no kontzertua Brigitarren Komentuan eta arratsaldean antzerki musikala kultur-etxean.

Ana Belen Garcia Perez andoaindarrak joko du Brigita- rren komentuko organoa igan-



Boris Nogales, Xabier Goitia, Jon Garagarza, Ana Belen Garcia, Juxanti Ugarte eta Patri Goialde ostiraleko aurkezpenen.

de eguerdiko 12:30ean hasita.

Jesus Mari Egizabalek eman- dako informazioaren arabera, 1991. urtean eman zen azken kontzertua, bertan 1915ean jarri zen organo txiki eta berezi honekin. Esteban Elizondoz izan zen organista orduan, orain joko duen Ana Belen Garcia bezala, Donostiako Santa Maria elizako organista. Dena den, astero jotzen du mezatan musika tresna hori Sor Graciela ala Felipe Lizarragak. Kontzertua dela eta organoa afinatu eta puntu-puntu jarri dute.

Ana Belen Garcia organis- tak esan zuenez, ez da Gipuz- koako beste organo batzuek bezain ezaguna, baina soinua kalitate oso onekoa bai. Azepeitan egindako organo honekin, XVII. mendetik hasi eta XX. mendera arteko hain- bat lan joko ditu Italia, Alema- nia, Frantzia eta Espainiakoak.

Danak Kide elkarte- ko Jesus Mari Egizabalek esan zuenez, ez da erraz erraza izan Elizaren baimena lortzea eta gerora ere berri horrela- ko kontzertuak egitea zaila izango da, bere iritziz, egun- go Gipuzkoako gotzaindegi- ko arduradunen joera, klausura- ko komentuak ixteko delako.

Igandearen arratsaldeko 17:00etarako beste emanaldi bikain bat antolatu dute: Ate- Joka taldeko Aitor Fernandez, Tomas Ruti eta Jon Garagarza lasarte-riatarren "Biolin Magi- koa" antzerki lana.

Garagarzak nabarmendu zuenez, historiako musikari kla- sikoko eguneratu eta ibilditxo bat egiten dute musikaren his- torian. Herrikoak direla eta herrian euren lana erakuste- ko gogoz daudela ere aipatu zuen.

I. Musika Asteko egitaraua

Asteazkena 17, 19:30etan

Musikene, Euskal Herriko Goi-mailako musika ikastegi- ko, Saxofoi ensemblek entzuteko aukera.

Talde honen errepertorioa transkripzio barrokoko, klasi- koko edo erromantikoa, gaur egungo musika arte dago, azpimarratuz XX eta XXI mendei dagokionak. Doan.

Osteguna 18, 19:30etan

Ainhoa Merzero sopranoaren ahotsaz gozatu ahal- ko da. Francisco Escudero kontzertatzen duela eta gaur egungo musika arte dago, azpimarratuz XX eta XXI mendei dagokionak. Doan.

Osteguna 18, 21:30etan

"Let's get lost" filma ikusgai izan- go da Okendo Zinema taldearen eskutik. Chet Baker jazz tron- petistaren bizitza buruzko dokumentala.

1989an Oskar-erako izendatua izan zen Dokumental onena bezala eta Veneziako jaialdian kritikaren sariarekin saritua izan zen.

Sarrera, leihatlan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Jatorrizko bertsioa azpititulekin.

Ostirala 19, 20:30etan

Ruper Ordorika abeslariaren kontzertua izango da. Ruper Ordo- rika bakarrik arituko zaigu: gitarra eta ahotsa. Kontzertu be- rezia... Sarrera, leihatlan 3,50 euro; internet bidez, 3,25 euro.

Larunbata 20, 19:30etan

Pasaia Musikaleko Octopus eta White Storm konboen kon- zertua entzuteko aukera izango da. Haien errepertorioak estilo barietate handia dauka. Doan.

Igandearen 21, 12:30etan - Ama Brigitarren komentuan Ana Belen Garcia organo jolearen kontzertua entzungai izango da.

Igandearen 21, 17:00etan

Haurrentzako antzerkia, AteJoka teatro taldeak "Biolin Magi- koa" antzerkia eskainiko du.

7 urtetik gorako haurrei zuzendua. Musikaren Historia ikuspegi dibertigarri eta akzioz betetako istorio baten bidez kontzertatzen dute.

Sarrera leihatlan, 3,70 euro; internet bidez, 3,24 euro. Euskaraz.

Aitor Fernandez, Tomas Ruti eta Jon Garagarza ATeJoka antzerki taldeko partaide eta adiskideak

"Lagunek egin dugu Biolin magikoa"

■ Igandean, apirilaren 21ean, arratsaldeko 17:00etan kultur etxean eskainiko dute ikuskizun berria **■** Herriko lagun koadrila bereko aktore, musikari eta teknikariak lagunartean sortu dute antzezlan

Lagunartean sortu dute "Biolin Magikoa" antzerki lana ATeJoka taldeko Aitor Fernandez, Tomas Ruti eta Jon Garagarza parta- deek. Lasarte-riatarrek hiruak, lagun koadrila berekoak, eta urtetan behin eta berriro esandakoa gauzatu zuten 2012an: elkarrekin zerbitu egitea. Fernandezek aktore dihardu Txalo tal- dean, Ruti musikari orkestratan eta irakasle kontzertatzen, Garagarzak soinua teknikeri bere enpresan eta orain euren lanak elkartu dituzte "Biolin Magikoa" antzezlanean. Ruti esan digunez, musika umeel helarazteko beste modu bat izango da. Iparraldeko Euskal Kultur Erakundearen Arte Eszenen saria jaso eta ia, urriaren 18an, entrenatu zuten Miarritzen.

Jon ALTUNA IZA

Aitor Fernandez sarri etortzen da herrira aspaldian Bilbotik, Tomas Ruti eta Jon Garagarza lagunekin "Biolin Magikoa" antzerki lana prestatzea. Igandean hilaren 21ean arrats- aldeko 17:00etan Manuel Lekuona Kultur Etxean izango dira. "Nire herria da eta gus- tura etortzen naiz" esan digu Fernandezek. Berarekin batera Tomas Ruti musikaria izan- go da oholatzen, biolina jotzen. Jon Garagarza arduratuko da atzeko lana eta azpiegituraz.

Nabariatu al duzue geroa beraien presentzia?

Momentuz gutxi mugitu dugu antzerki lana. Zorionez, bakoitzak bere lana dauka eta ez dauka denbora askorik. Eta talde bezala ere ez gara oraindik ezagunak.

Hiruror artean agenda koadratzen ez daukagu erra- za, izan ditugu aukerak, baina batek edo besteak ezin zuelako emanaldi batzuek utzi egin behar izan ditugu. Dena den, aurten bost "bolo" badauzka- gu baietazuta. Gehiegi mugitu gabe poliki, poliki, gustura ari gara. Oraingo ez gara haserretu, beraz, ondo.

Tomas izan al duzu esperientziarik antzokian?

Institutu garaian hiru urtez aritu ginen antzerkian Aitor Bai, 2012ko urtarrean elkar- tu eta justu iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak EKE beka bat ateratu zuen. Testua idatzita geneukan, gure ideia aurkeztu eta asko gustatu zitzaion. Hitz-egindakoa eta buruan geneua gauzatzeko aukera izan zen.

Zuek sortu duzue antzezlan?

Gidoia Aitorrek idatzi du, eta, gero, Tomas eta Jonek aldeka- tak proposatu. Aurkezteko data geneukanez, elkarrekin zerbitu egiteaz mintzatu ginenetik pro- zeso oso azkarran izan da: hain justu, maiatzean esan ziguten

Maite, antzerkia, magia, dan- tza, milmoa... denetarik dauka, beti ere umore ulkutarrekin...

Bai, umoretsua da, familia oso- arrenzat. Umeentzako da, baina gurasoek ere para egiten dute, ikusi dutenei gustatu

zaie. Biolinaren inguruko isto- ria muntatu dugu, magikoa da eta antzezlanera doazenez iku- siko dituzte bere botereak.

Ez du mugarik, mundu zaba- lean eta garaiz ezberdinetan dabilta pertsonalari, ezta?

Bai, lapurraren familia beti ibili da biolinaren atzetik, eta hori baliatzen dugu nolabait musikaren historiako gertaera ezberdinetatik pasatzeko. Mozartekin hasi eta, Beetho- ven, Paganini, Irlandako folk musika, Eskoziakoa eta abar. Gure interpretazioa egin dugu.

Ez da oso akademikoa, baina, bai, dibertigarria. Bioli- na bakarrik astuna izan date- ke, baina eritimo ezberdin eta zenbait jokorekin polita da. Gainera Tomasek oso ondo jotzen du biolina...

Zer bait desberdina egiteko aukera izan duzue...

Bai, polita da gauzak egin ahal izatea. Biolinarekin beti oso molde jakin batzuetan zabilta. Hau zerbitu desber- dina egiteko aukera izan da eta antzerkiaren grina hori pixka bat kentzekoa ere bai.

Garrantzia du biolinak emal- dian, ezta?

Bai, azken finean zati guztietan dugu biolinarekin jotako piezaren bat, eta horren inguruko eszena edo istorioa.



Krisi garaian, gure ez esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Foto depilazioa angipultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

ERRUGBIA.-

Beltzak taldearen garaipen epikoa

Irun Zaisa hartu du mendean 24-19, hainbat momentutan hiru jokalaririk gutxiagorekin arituta

Kadeteen Euskal Ligako jardunaldiaz gain, Errugbi eskolen 3. topaketa egin zen. Hernani, Bera-Bera, Arrasate-Eibar eta Zarautzeko lagunak Lasarte-Oriara gerturatu eta eskoletako txikienek, alebin eta benjaminen, haien trebezia erakutsi ahal izan zuten Michelinek igande goizean.

Txintxarri

Beltzak taldearentzat asteburu handia izan da. Larunbatean Kadeteen Euskal Ligako partidua izan zuten Michelingo berdegunean Zaisa Irun taldearen aurka eta azkenaldian jokaturako partidurik onena burutu zutela esan daiteke.

Partidua hasi eta gutxira, 2. minutuan, Julen Aristorena kapitainak entsegu-marraz haratago utzi zuen baloia, lehenengo 5 puntuak zakuratu. Ez zen inondik inora esperotako hasiera izan, Beltzak taldeak 14 gerlarirekin zelairatu izan behar baitzuen, Irungo 15 morrosko handiei aurre egiteko. Jokalari bat gutxiagorekin egin zuten partidu osoa.



Igandean berriz, errugbiak ikasi eta gozatzeko aukera izan zuten gaztekoenek.

Beraz, guda edo guda. Ez zegoen beste aukerarik. Atzean sartu beharrean, aurrean presionatu eta irundarrei ahalik eta zelai gehiena jatea zuten helburu.

Planteamendu horri jarraituta, 10. minuturako Aristorena kapitainak berriro ere uztartzea egin zuen, eta Xabi Prietol baloia hiru zutabeen artean botatzean, 7 puntuko jokaldia gauzatzea lortu zuten beltzek, 12-0. Asko geratzen zen oraindik ordea.

Irungo taldeak aurreko lerroa zueb indartsua, jokalaririk handiak zituen eta hauen defentsa haustea zaila zen herritarrentzat. Ekinaren ekinenez ordea, Ander Rekondo lasarteoriatarrek defentsa hautsi eta entsegua egin ostean,



Ostadar Beltzak taldea erasoan, Ander Rekondok baloia eskuetan duela, Irungo defentsa larroak haustear.

uztartzea lortu zuten Prietoren bi puntu gehigarri esker, 19-0 markagailuan. Halaxe joan ziren atsedenaldira lehen 35 minutuak pasata.

Zelai ertzean zirkulu handi batean eserita, nekea antzematen zen jokalarien aurpegian, baina baita seriotasuna ere, Juantxo Prieto eta Jose Maria Nuñezek emandako aginduak adi-adi entzuten ari zirenen mutil gazteak, publikoaren "Beltzak, bai bai bai!" oihuen artean.

Beltzakeko gerrilariak

Bigarren zatia hasi bezain pronto, Aimar Mitxelenak txartel horia ikusi zuen, "plakaketa altua" deritzona egiteagatik, hau da, arierioa burutik gora heldu eta lurrera botatzeagatik. Jokaldi hori medio, Mitxelenak 10 minutu egin behar izan zituen zelaitik

kanpo, zigortuta. Hamabosteko taldea behar zuena, hamairu jokalarirekin geratu zen. Baina larunbatean nabari zen Beltzak taldeak zer edo zer handia egitea zuela buruan, azio handi bat, epikoa.

Horren erakusgarri handik gutxira Unai Urruzolak egindako entsegua, 24-0 jarriz markagailuan. Artean, partidua amaitzeko 20 minutu besterik ez ziren falta eta Beltzak taldearen jokariengatik nekea nabaritzen hasia zen dagoeneko.

Gainera, Xabi Prietok kolpe handia hartu zuen sorbalduan eta berdegunea utzi behar izan zuen... Beste baja bat Ostadar Beltzak Gure Etxea taldearentzat. Egoera baliatuz, Irun Zaisa taldeko 15 mutilak puntuak bildezten hasi ziren aurrean zituzten 12 gerrilari herritarrek ezer gutxi egin zezaketela probestuta.

Sekulako esfortzu fisikoa egin zuten beltzek, horren adibide, partidua amaitzeko 5 minutu falta zirela Andoni Amonarrirek izan zuen zorabioa. Belauna gaizki eduki arren, partidu osoa jokatu eta sekulako erakustaldi fisiko eta mentala eman zuten ez berak bakarrik, jokalaririk guztiek.

Halakoetan gertatzen den modura, jokalaririk, entrenatzaile eta harmailak etengabe aritu ziren epaileari ordua eskatzen eta azkenean, epaileak partidua amaitutzat jotzean, herririk mutil saiatuek amorrutik gozatu zuten ondo merezitako garaipena. Azken emaitza: 24-19. Beste jardunaldi bat eta beste garaipen bat Beltzak taldearentzat. Gerrilek ere, oso noizbehinka, lortzen dituzte ejertzito handien aurrean garaipenak, larunbatekoa kasu.

SASKIBALOA.-



Herriko nesken saskibaloia sasotsu.- Landaberri 06 alebinen nesken taldeak galdu egin zuen larunbatean Gipuzkoako txapelketara sailkatzeko lehen norgehiagoka Laskorainen aurka, 31-57ko emaitzaz. Noelia Bermejo prestatzaileak adierazi digunez, partidu hasieran taldea "urduri" zegoen eta pixka bat esnatzea kostatu zitzaion. Lehen bi laurdenak pasata ordea, lasaitu eta euren maila erakusteko aukera izan zuten Landaberriko neskek, baina ez zen nahikoa izan markagailua iraili eta partidua poltsikoratzeko. Hurrengo neurketa Tolosan izango dute hilaren 20ean, eguerdiko 12:00etan, Buruntzaldeako txapelidun geratu direnez, Tolosaldeko garailerean aurka (Laskorain) jokatu beharko dute itzulikoa eta neskek orain arte erakutsitako "gogoa eta talde giroa" mantentzea espero du Bermejok. Bestalde, kadete mailako Ostadar nesken taldeak balentria egin du, Itziar Bermudez eta Endika Marrahik zuzendutako neskek Gipuzkoako parte-hartze txapelketako finalerako txartela eskuratu dute. Hilaren 27an jokatu dute finala Añorgaren aurka.

ARETO-FUTBOLA.-

Areto-futboleko bi final-laurden erabaki dira

Ostadar SKT-k urtero antolatutako areto-futbol txapelketak aurrera darrai. Txapelketa final laurdenetan dago, aurreko astean jokatu ziren joanekoak eta asteburu honetan itzuliko bi partidu jokatu dira, Buenetxeak 8-1 egurtu zuen Urdaneta eta Txindokik 2-1 irabazi zion Indauxi. Final-aurrekoen emaitza globala, joanekoa eta itzulikoa kontuan hartuta, halaxe geratu da: Buenetxea-Urdaneta 15-3 eta Txindoki (iazko txapeliduna)-Indaux 3-1.

Itzulikoaren faltan, bi txartel daude jokoan finalaurrekoetarako, Izarra-El Punto eta Izkiña-ISU Leihok partidua berdinketarekin amaitu ziren joanekoan, 2-2 eta 3-3. Beraz, hurrengo igandean erabakiko dira finalerdiak, beroak espero diren neurketetan.



— Agenda —

Apirila bukaera arte, Jalgi Kafe-antzokia



Emakumeen garrantzia nekazal munduan

Mundu bat GKE eta Euskal Herriko nekazaien elkartasuna elkarrekin antolatuta, "Emakume nekazariak. Eskubide eta errealtateak" argazki erakusketa ikusgai izango da. Enrique Pimoulier argazkilaria lanak Kolonbia, Bolivia, Chiapas eta Guatemalako herrialde txirotuetan eta zehazki nekazal munduan emakumeek bizi duten egoera erakusten dute.

Igandea 21, 17:00etan

AteJoka teatro taldeak "Biolin magikoa" haurrentzako antzerki berezia eskainiko du. Honetan zuzeneko biolina entzuteko aukera izango da. 6-12 urte bitarteko haurrei zuzendua. Sarrera, internet bidez, 3,24 euro, leihatilan, 3,70 euro. Euskaraz

AMA BRIGITARREN KOMENTUAN

Igandea 21, 12:30ean

Ana Belen Garcia organo jolearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

Antzerkia

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Ostirala 19, 22:30ean

Ganorax taldearen "Zeeze, o ze!" lana ikusteko aukera izango da. Kultur Errotako ekintza da. Doan.

Andoain

Dantza

BASTERO KULTURGUNA

Ostirala 19, 20:00etan

Andoain dantzan ekimenaren barruan, Urki dantza taldearen lana ikusgai. Sarrera doan.

Astigarraga

Txotxongiloak

KULTUR-ETXEA, HAUR LIBURUTEGIA

Osteguna 18, 17:30ean

BOLI, BILLI, BOLI txotxongilo emanaldia ikusi ahal izango da. 3-8 urte bitarteko haurrei eta familiei zuzenduta, Juan Kruz Igerabide idazlearen haur-poesian oinarrituta dago. Sarrera doan.

Lasarte-Oria

Musika astea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 17, 19:30ean

Musikene, Euskal Herriko Goi-mailako musika ikastegiko, Saxofoi ensemblea entzuteko aukera. Doan.



Osteguna 18, 19:30ean

Ainhoa Merzero sopranoaren ahotsaz gozatu ahaliko da. Euskal doinuak, zein egile handienak eskainiko ditu. Doan.



Osteguna 18, 21:30ean

Ostegun zinea atalean, Chet Bakerri buruzko "Let's get lost" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Jatorrizko hizkuntza azpitituluekin.

Ostirala 19, 20:30ean

Ruper Ordorika abeslariaren kontzertua izango da. Sarrera, leihatilan 3,50 euro; internet bidez, 3,25 euro.



Larunbata 20, 19:30ean

Pasaia Musikaleko Octopus eta White Storm konboen kontzertua entzuteko aukera izango da. Haien erreperorioak estilo barietate handia dauka. Doan.

— Herritarren txokoa —

Alboka Abesbatzaren Batzar Orokorra

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, apirilaren 22an astelehena, urteroko batzar orokorra egingo duela Arantzazuko Amabirjinaren eliza azpiko lokalean.

Lehenengo deialdia 19:30etan izango da eta bigarrena 20:00etan. Bazkide eta abeslarietarako erregutuzen zaie puntual iristea.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru ordulari, sei betaurreko graduatu, patinete bat, euritako anorak bat, hiru mugikor, haur baten berokia eta motxila bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Uztaro kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan

hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidetan.

Margo eta marrazki klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

— Sarean —

Gaurko hitza euskarazko hitzak ezagutzeko

Egunez egun eta hitzez hitz zure hiztegia aberasten laguntzeko bloga dago sarean, Gaurko hitza.

Honetan egunero euskal hiztegiako hitz bat jartzen da. Honen esanahia azaltzen da eta baita bere erabilera ere.



Hitz hauekin jolasteko aukera ematen du blogak. Horretarako, Hitz pasa, hitz-jokoak edo letraz letra atalak daude.

Blogak 4 urte bete zituen 2012ko azaroan eta 1500 hitz baino gehiago argitaratu ditu dagoeneko.

Igandero bideo bat jartzen da, hitza audioz eta irudiz laguntzeko. Larunbatero, berriz, abesti batetik ateratzen dute hitza eta, ohiko azalpena ematez gain, abesti hori moldatuta, hutsuneak betetzeko ariketa bihurtzen dute.

Jendea blog honetara harpidetu daiteke eta egunero hitzaren berri izan ahal du. Era berean, hitzak iradokitzeak aukera dute blog honetako jarraitzaileek.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



IZARRA
BITXITEGIA

www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.I.E.

